

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Asteazkena, 2012ko ekainaren 13a. IX. urtea. 2.366. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Ibarrak adimen urritasuna dutenen zentroa hartuko du

Udalak eta Goienetxe fundazioak hitzarmena sinatu dute; gunea Behekobiden egiten ari diren erabilera anitzeko eraikinean egongo da ◊6



Hitzarmena sinatu zuten, atzo goizean, udaletxeko batzar aretoan. I.T.



→ **Leundutako 'Lysistrata', Tolosan.** Ostiralean, 20:30etik aurrera, Tolosako kultur etxeko antzerki taldeko kideek ikasturte amaierako lana antzetzuko dute: *Lysistrata*. Aristofanesen obra klasikoa «leuntzen» saiatu direla esan du Elena Aranbarri irakasleak, izan ere, «gaur eguneko ikusleentzat» moldatu dute lana. ◊2

16 talde ari dira lehian, Villabonako plazako futbol txapelketan

Finala Santio bezperan, uztailearen 24an, izango da; tradizio handiko lehiaketa dela diote antolatzaileek ◊5

Alegiako Keiran taldeak hartuko du parte Euskal Herriko Kantu Txapelketan

Larunbatean izango da lehiaketa; hirukoteak Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen ◊4

Igerabideren olerkiekin 'Boli bili boli' ikuskizuna prestatu dute

Tolosako Topic zentroan estreinatuko dute ostiralean; Pantzart taldeak egin du lana ◊3

Larramendi Auzoko Urbanizazioa

5 minutu auzo bat eraikitzeko

Parte hartu!

Ekainaren 16an, auzo kontsulta • Eman botoa!



Emakumeen aldeko satira grekoa eskainiko du antzerki taldeak, etzi

Aristofanes autore klasikoaren 'Lysistrata' antzerki obra moldatu dute, Leidorreko oholtzarako

Itzea Urkizu

Lysistrata obra, Kristo aurreko 411. urtean antzeztu zuten lehenengoz, Atenasen. Garaiko egoera sozial eta politikoa islatu zuen emakumeen aldeko satira hau, ostiral honetan ikusi ahal izango da, 20:30etik aurrera, Leidor aretoan, kultur etxeko antzerki taldearen eskutik.

Elena Aranbarrik zuzentzen duen antzerki taldeak, Aristofanesen jatorrizko obra moldatu egin behar izan du; batetik, taldeko kideen kopurua kontuan izan dute horretarako, eta era berean, adina eta sexua ere aintzat hartu dituzte.

Modu honetara, jatorrizko testua laburtu dute, bereziki agerraldi zehatz batzuetan. «Hitz batean, gaur egungo aktore nahiz ikusleentzat beharrezkoa zen leuntzea eman diogu obrari», azaldu du Aranbarrik.

Lysistrata obra ikasturte amaierako emanaldirako proposatzea erronka handia izan dela azaldu du antzerki eskolako arduradunak: «Tailerreko 24 kidek parte hartu dute egitasmoan, eta nabarmentzekoa da, hainbeste jende elkarrekin lana eta ahalegina egiteko, norberak konpromiso handiagoa hartu behar duela. Hau dela eta, oso pozik nago oztopoak gainditu ditugulako, eta komedia honekin aurrera egitea lor-



Kultur etxeko antzerki taldeko zenbait kide, Elena Aranbarrekin batera, aurkezpenean. I. URKIZU

tu dugulako». Elena Aranbarrik, azkenik, antzerki tailerreko kideei eskerrak eman nahi izan dizkie: «Duten umoreagatik eta antzerki grinagatik eskerrak eman nahi dizkiet, bidean sortzen diren arazoak gainditzen laguntzen baitu honek». Horrela beraz, tolosar guztiak gonbidatu nahi izan ditu *Lysistrata* obra ikustera.

Emakumeen sinbolo

Kristo aurreko 411. urtean antzeztu zuten lehenengoz *Lysistrata*. Aristofanesek idatzi zuen, eta komediarantz bideratu zituen bere sormen lan gehientsuenak; gus-

tukoa ez zuen hura publikoki kiritikatze erabili zuen genero hau. Garai hartan, Atenasek 20 urte zeramatzen Espartarekin gerran, eta arte eta pentsamendu oparoko herria zen arren, ekonomikoki eta moralaren aldetik, zapalduetako herria zen: desagertutako gurasoak, emakumeak bakarrik etxean, gerran hildako semeak, ... Era berean, alderdi politikoen arteko tentsioak ere nabarmenak ziren.

Honen aurrean, Aristofanesek satira bat idatzi zuen, eta barrea eraginez, herriko arazoez aritu zen, greziar komedia politikoari

obra berri bat emanez. *Lysistrata* obrako pertsonaia baten izena da, eta herriko emakumeen bozeramalea da bera. Bakea beharrezkotzat dute eurek, eta hori lortzeko, greba bikoitza egiten dute: sexu eta familia greba. Halaber, Acropolia jabetza hartuko dute Atenasko emakumeek, politikariek bertako dirua eramatea galazteko.

Aipatzekoa da, *Lysistrata* garaiko mugimendu baketsu nahiz feminista zenbait izendatzeko erabilia izan dela, eta emakumeen eskubideen aldeko borrokan, sinbolo modukoa dela.

Gutuna

Mila esker, Bonberenea



Aurtengo ikasturtea amaitzen ari da jada, oporren usaina hartzen hasiak gara lantoki eta ikastetxeetan. Bonberenean ere, aurtengo ikasturtea amaitutzat eman ez badute, ez zaie asko faltako, kontzertuei dago-kienez behintzat.

Makina bat kontzertu ikusteko aukera izan dut aurtun, irailetik hasita maiatza bukaerara arte: Aina eta No More Lies, Enablers, Napoka Iria, Willis Drummond, Rafa Rueda, Grises eta Anai arrebak, Zea Mays, Glaukoma, Dolce Tangana eta Atila y los Unos, Indekitxen, Joseba Irazoki, Xabier Montoia, Berri Txarrak, Lisabö, Xabi ta Petti, La Troba Kung Fu, Trizeps, Inoren Ero Ni eta Layo Raser.

Baten bat ahaztuko zait agian; egin dituzten guztien artean lagin bat besterik ez dira aipaturiko hauek.

Batzuk besteak baino gehiago gustatu zaizkit, baina denekin ikaragarri ondo pasa dut, maila, orokorrean, oso altua izan baita. Eskerrik asko denei!

Beti gustatu izan zaizkit zuzeneko musika emanaldiak, kontzertuak, eta Tolosan bizi naizenez geroztik, oso maiz izaten dut joateko aukera.

Izan ere, ez zaizkit hobeak diren plan asko bururatzten; afaldu, kalera irten eta paseotxo bat eginez, bertatik bertara, kontzertu on bat ikusi. A zer nolako luxua! Kotxea hartu beharrik gabe eta neurriko prezioan gainera.

Aspaldidanik eman nahi nizkien eskerrak publikoki. Sekulako lana egiten dute, musutruk, benetan egiten dutena maite eta baloratzen dutelako. Kalean ere gozamen galanta hartzen dugu Bonberenea Txaranga herriko edozein txokotan topatzen dugunean; gazte-gazteak dira gehienak, harrobi kultural bikaina!

Datorren ikasturtea Bonberenea Sutan-ekin hastea egokitu-ko zaigula uste dut, txanpa hartzeko. Ziur naiz, horren ondotik ere kontzertu bikain piloaz gozatzeko aukera emango digutela. Irrikitan nago jada.

Mila esker Bonberenea osatzen duzuen guztioi.

Eskerrik asko egiten duzuen lan ikusgarriagatik.

Altxorra dauka Tolosak Bonberenean, hiltzen utzi ezin den kultur eragile miresgarria.

■ **Ander Auzmendi Perez de Lazarraga.**

Iragarki laburrak

IKASTAROA

■ **Tailer askeak.** Sormensena tailer askeak Leitzan: 6 urtetik gorako gaztetxoentzat. Uztailen 1, 2, 3 edo 4 egun, astelehe-

netik ostegunera. Egunean 2 ordu: 10:30etik 12:30era. Izen emateko azken eguna, ekainaren 15a. www.sormensena.blogspot.com.

Txinpartako pintura lehiaketan izena emateko azken eguna, bihar

Obra irabazleak elkartearen bertan ikusgai izango dira San Joan jaietan, ekainaren 23tik 25era bitarte

I. Urkizu

Bihar izango da, Txinparta elkarteak antolatutako Felix Yarzaren Omenezko VIII. Pintura Lehiaketan izena emateko azken eguna.

Tolosaldean jaio edo bertan bizi diren artistek parte hartu ahal izango dute, eta bakoitzak 2

obra aurkeztu ahal izango ditu, 73x60 zentimetroko neurrian; gaia, berriz, librea izango da aurtun.

Izen ematea eta obraren deskribapena bihar entregatu beharko den arren, koadroak hilaren 18 eta 19an entregatu beharko dira, elkartearen, 19:30etik 20:30era. Irabazleak 240 euroko saria izango du; bigarren saria 180 eurokoa izango da; eta hirugarrena 120 eurokoa.

Lan sarituak elkartearen bertan ikusgai izango dira, ekainaren 23ko 18:00etatik ekainaren 25era bitarte.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Igerabideren olerkietatik abiatuta, txotxongilo emanaldia osatu dute

Pantzar antzerki taldeak 'Boli bili boli' ikuskizunaren estreinaldia egingo du, etzi, Topic zentroan

Imanol Garcia Landa Tolosa

Juan Kruz Igerabide adunarraren olerkiak erabili dituzte Pantzar antzerki taldekoek *Boli bili boli* txotxongiloekin egindako antzezlan sortzeko. Topic zentroarekin elkarlanean osatu dute obra eta bertan estreinatuko dute etzi, hilaren 15ean, 18:30ean.

Elena Bezanilla taldeko zuzendariak azaldu duenez, Igerabideren olerkien topo egin zuen, eta bereziki gustatu zitzaizkion: «Autore eta olerki asko irakurri izan ditut, eta Igerabiderena izugarri gustatu zaizkit. Hunkitu egin naute, eta haurrentzako zein helduentzako balio dute. Haurrak ez ditu lelotzat hartzen eta hori asko gustatu zaib».

Emanaldia 3 eta 6 urte bitarteko haurrei zuzendutakoa da, baina helduek ere gozatuko dutela esan du Bezanillak. Olerkien aukeraketa bat egin dute, adin tarte horretako haurrei modu errazean iritsiko zaizkienak hartuz, eta «umorea bilatu diogu, joko sartzuz», azaldu du obraren zuzendariak.

Bi aktore izango dira oholtza gainean, Izaskun Fernandez eta Santiago Ortega, eta txotxongiloak erabiltzeaz gain, abestu eta dantzatu egingo dute 35 minutu



Pantzar taldeko kideak, *Boli bili boli* obraren entsegu batean. HITZA

inguru iraungo duen emanaldian. Bezanillak azaldu duenez, «sorkuntza kolektiboaren bitartez» sortu dute ikuskizuna. Musika bereziki obrarentzako sortu dela nabarmendu du zuzendariak. Adrian Garcia de los Ojos izan da musika egilea, eta ikuskizunean agertzen diren olerki gehienak musikatu ditu.

Tolosan egonaldia

Pantzar taldekoak Tolosan izan dira obra prestatzeko. Topic zentroaren laguntza izan dute emanaldia sortzeko, eta, besteak beste, bertako azpiegitura erabili dute. Bezanillak azaldu duenez, hiru egonaldi egin dituzte herriari, eta guztira bost aste egon dira. «Guretzat oso garrantzitsua

izan da elkarrekin Tolosan egotea, ikuskizuna mamitzeko asko lagundu baitugu». Bestalde, «oso gustura» egon direla esan du zuzendariak: «Oso ondo tratatu gaituzte eta Tolosa oso herri lasaia da».

Haur zein helduentzako antzezlanak egiten dituen konpainia da Pantzar. Euskal inauterietako pertsonaiaren izena duen taldeko kideek Bilbon garatzen dituzte ikuskizunak. Beren inspirazio iturri dira herriko jaiak, bufoi eta boboak, erraldoiak, ipontzak eta munstroak, hainbat estilo pailazoak... Taldeko ardura-dunek diotenez, «inauterietako kultura komikoa eta herri-barrea gure lanaren inspirazio iturri dira».

→ Laburrak

Eskualdeko hiru bertsolari, eskolarteko txapelketan

KULTURA Euskal Herriko XXIV. Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finalean eskualdeko hiru bertsolari izango dira 14 urte azpiko mailan. Maddi Etxeberria larrauldarra, Joanes Ilarregi leitzarra eta Beñat Altzelai leitzarra izango dira, larunbatean, ekainak 16, Aguraingo (Araba) Harresi aretoan.

Mosaikoa egiteko deialdia, Tolosa Zero Zaborretik

TOLOSA Tolosa Zero Zabor taldeak deialdia egin dute hilaren 17an Donostiako Saguesen egingo den aldarrikapen festara. «Alderdikeriak eta ika-mikak alde batera utzi, eta herritarrok gure lekua hartu behar dugu aire garbiak biratuko duen errota koloretsua irudikatuko duen mosaiko erraldoian», azaldu dute. Mosaikoa osatzeko kartulina eskuratzeko tolosazerozabor@gmail.com helbidera eskatu edo Trianguloa plazara joan daiteke hilaren 16an.

Karlos Ormazabal hitzaldia hondakinei buruz

TOLOSA Tolosako EAJK Atez atekoa ez, *birziklapena bai* izenburupean hitzaldia antolatatu du, Carlos Ormazabal Garapen Iraunkorrek diputatu ohiaren eskutik. Hitzaldia bihar izango da, hilak 14, Tolosako udaletxeko bilkura aretoan, 20:00etan, eta herritar guztiei egin diete deialdia joateko.

Dantza jaialdiko sarrerak salgai daude dagoeneko

TOLOSA Dagoeneko salgai daude Tolosako dantza tailerreko ikasturte amaierako ikuskizunerako sarrerak. Jaialdia hilaren 17an, igandea, izango da, 12:00etan, eta sarreraren prezioa 3 eurokoa da. Sarrerak Leidorreko leihatilan eta www.kutxa-sarrerak.net helbidean eskuratu daitezke.

Areto futbol txapelketan, izen ematea irekita

TOLOSA Arsenal elkartearen San Joan Areto Futbol Txapelketan izena emateko aukera dago Shanti Kirolak dendan, hilaren 21a arte. Mutil zein nesketan bi maila izango dira: 2002-2003an jaiotakoak eta 2000-2001ean jaiotakoak. Tolosaldeko (Legorretakoek ere) eta Leitzaldeko gaztetxoek parte hartu dezakete. Usabalen jokatuko dira partidak hilaren 26tik 30era. Finala uztailearen 1ean izango da.

Sentsibilizazio zentralako sindromeak, hizpide

TOLOSA Bizi Bidek, Fibromialgia eta Neke Kronikoaren Sindromearen elkarteak, hitzaldia emango du, bihar, Tolosako kultur etxean, 17:00etan. Hitzaldian sentsibilizazio zentralako sindromei buruz ariko dira: fibromialgia, neke kronikoaren sindromea, sentsibilitate kimiko anitza eta elektrohipersentsibilitatea. Elkarteak dioenez, gaixotasun hauek gizartearen ehuneko zabal bati eragiten diete eta orokorrean ez dira oso ezagunak. Sarrera doakoa izango da.

Ez da egingo biharko antolatutako hitzaldia

VILLABONA Aste Berdearen baruan biharko aurreikusita zegoen *Azpiegiturak, herri mugimendua eta iraunkortasuna* hitzaldia bertan behera gelditu dela azaldu du Amasa-Villabonako Udalak.

Antxon Bandres Txokoa, boluntarioen bilera

TOLOSA Haur Liburutegia dagoen Errota eraikinaren behe solairuko Antxon Bandres Txokoa bilera egingo dute, gaur, 19:00etan. Txokoa boluntarioei dei eginen zaie bertan parte hartzeko. Ideia berriak, elkar ezagutzeta, proposamenak... landuko dira.

Ixaso Martinen 'ni, Vera' liburuarekin, solasaldia

TOLOSA Galtzaundi Irakurle Taldeak ikasturteari amaiera emango dio Ixaso Martinen *ni, Vera* liburuaren inguruko solasaldiarekin. Horretarako bihar, hilaren 14ean, elkartuko dira Tolosako kultur etxean, 19:30ean.

Asuncionen, eguzkitik babesteko produktuak

TOLOSA Azaleko Minbiziaren Europako Eguna dela eta, gaur Asuncion klinikak eguzkitik babesteko produktuak banatuko ditu. Tolosako Belate auzoan duen zentroan egingo du banaketa.

Entsegua egingo dute, bihar, Tolosa Kantarikoei

TOLOSA Tolosa Kantarik hilero antolatzen duen kantu jirarako lehenbiziko entsegua bihar izango da, hilaren 14ean. Betiko moduan, entsegua 20:00etan hasiko da, Rondilla kalean dagoen udal musika eskolan. Ohi bezala, parte hartzea libre da. Hilabete honetako kantu-jira hilaren 30ean izango da eta bertan parte hartuko dute Giro-Arte dultzainero taldeak.

Ekintzailetasuna sustatu asmoz, Tolosaldea Garatzenen ikastaroa

Hilaren 18an hasiko da ikastaroa eta 50 ordu izango ditu; kooperatiba bat sortzeari buruz ere ariko dira bertan

I. Garcia Landa

Eskualdeko ekintzaile berriei zuzenduriko prestakuntza programa martxan jarri du Tolosaldea Garatzenek 2012. urterako. Tolosaldea Garatzenen helburuetako bat eskualdean enpresa ekimen berriak sortzea dela azaldu dute, «betiere lanpostu berriak sortze-

ko aukera sustatzen badute». Horrela, ekintzailetasuna sustatu asmoz eta ekintzailetasun izpiritu bultzatu asmoz, enpresa ekimen berri bat sortu nahi duten ekintzaileei zuzenduriko lehen enpresa kudeaketa ikastaroa antolatu du. *Enpresa kudeaketa ikastaroa ekintzaile berrientzat. Zergatik ez kooperatiba bat sortu?*

Ikastaroaren hasiera hilaren 18an izango da eta bukaera hilaren 19an, guztira 50 ordu eginez. Asteleheneetik ostiralera egingo dute, 09:00etatik 14:00etara. Ikastaroa enpresa egitasmo bat izan dezaketean eskualdeko ekintzaile-

ei zuzendutako da. Besteak beste, ondorengo gaiak jorratuko dituzte: bideragarritasun plana; ideia eta enpresa antolakuntza; jardueramerkatu analisia, marketing plana; ekonomi-finantza arloa; egitura juridikoak; kooperatiba-erregulazioak; arlo laborala; eta sare sozialak.

Ikastaro horren inguruan argibide gehiago izateko, Tolosaldea Garatzeneko Autoenplegu Sailera joan daiteke, horretarako 943 65 45 01 telefono zenbakira deituz, edota zubeldia@tolosaldea.net helbidera idatziz, edota zuzenean www.tolosaldeagaratzen.net webgunean sartuz.

Euskal Herriko Kantu Txapelketa Nagusian Keiran taldeak parte hartuko du

Donostiako Antzoki Zaharrean, larunbatean 18:00etan, izango da txapelketa; Gipuzkoak lau ordezkari izango ditu

Eneritz Maiz Alegia

Euskal Herriko Kantu Txapelketa Nagusia izango da Donostiako Antzoki Zaharrean, larunbatean, hilaren 16an. 18:00etan emango zaio hasiera, eta Gipuzkoa ordezkatzuz, Alegiako Keiran taldeak parte hartuko du.

Keiran taldea, Marta Olea, Aitor Iraola eta Nora Salbadorrek osatzen dute. Txapelketarako, *Denboraren arantzak* abestia prestatu dute. Beraiak sortutako abestia da, eta txapelketarako moldaketa batzuk egin dizkiote kantari. Azken egunetan entsegu asko egiten iri dira taldekiak, eta «oso urduri» daudela esan du Marta Oleak. Lehen aldiz parte hartuko dute Euskal Herriko Txapelketan, «Gipuzkoako txapelketa irabazi genuen, eta larunbatekoa esperientzia berria izango da. Herrialde bakoitzeko oenak egongo dira, eta maila nahiko altua egongo da. Gu ahalik eta ondoen egiten saiatuko gara», gaineratu du Oleak.

Euskal Herriko zazpi herrialde-tako ordezkariak hartzen dute



Keiran taldea, Alegiako II. Herria Kantuan jaialdian. PIRENOBALS.

parte txapelketan, eta Gipuzkoak lau izango ditu. Alegiako Keiran taldeaz gain, Jon Anza Donostiako bakarlaría, Lorea Intxaurrendieta Lezoko bakarlaría, eta Inza Unanue eta Olatz Lizaso Orioko bikotea izango dira.

Sarrerak astelehenetik salgai jarrita daude, eta txartela 10 euro ordaindu beharko da. Antzoki Zaharreko leihatilan edo Internet bidez, www.kutxasarrerak.net helbidean eros daitezke. Epaimahaiak, talde edota bakarlarien hitzak, melodia, ahotsa, trebetasuna eta adierazkortasuna baloratuko ditu.

Euskal Kantuzaleen elkarte
Eñaut Larralde gogoan izango dute, larunbatean. Euskal Kantuzaleen Elkarteak sortzaileetako bat izan zen. Euskal Kantuzaleen Elkarteak, lehenengoz, 1985. urte-

an sortu zen, Iparraldean. Euskara abesti lehiaketa antolatatu zuten, eta lehen aldian helduentzat soilik izan zen. 1987. urtean, Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa lotu zitzaizkien, eta haurrei zuzendutako lehen lehiaketak antolatatu zituzten.

Ekimenak gero eta oihartzun nabarmenagoa zuenez, elkarte bezala lau herrialdeetan antolatzeari adostu zuten. 1992. urtean Euskal Kantuzaleen Elkarteak sortu zuten. Orduetik makina bat ekimen antolatzen dituzte, Haur Kantu Txapelketak, Kantaldi bereziak, Kantujirak, formazioerako ikastaroak, ikuskizunak, eta nola ez, Hielduen Euskal Herriko Kantu Txapelketa Nagusia. Lau urtean behin egiten dute, eta azkena, 2008. urtean izan zen, Bilbon. Ea, aurren, Donostiako txapelketak zer ematen duen.

Super animaliak



Bioaniztasunetik
Jon Ander Galarraga
Biologoa

Bizitza erreala fikziozko filmak baino are harrigarriagoa dela esaten da, eta hau egia borobila da zenbait animalia ikertzen hasten garenean, izan ere, munduan barrena super animalia ugari ditugu, eta asko gugandik bi pausotara.

Ikusi antzara; itxura handia du, hegalarik bikaina da, eta urtero milaka kilometro egiten ditu hementengo negu gogorra utzi eta leku beroagoetara joateko. Antzarak hegana doazela ez dute inongo kartelik behar milaka kilometrotara dauden eremu beroetara joateko, ez daukate GPSrik, badakite nondik joan behar duten inongo erreferentziarik gabeko zeru urdinean.

Azken ikerketen arabera, antzarak beren moko aurrean iparrorratz baten funtzioa egiten duen metal magnetikoez betetako zelula multzoak omen dituzte, modu honetara, antzarak badaki iparra non dagoen eta honen laguntzaz eta beste erreferentzia ezezagun batzuekin, munduan zeharreko bidaia egiten du urtero. Hala ere, iparrorratz hau ez da inolaz ere erabat zehatza, tarteka ikusi dira galduta dauden antzarak gure errepedietan, beraien iparrorratzaren akats bat ote ala gure hirien gainean dagoen keak, kutsadurak eta zaratak nahasten ote ditu?

Azeria ere super animalia horien artean ipintzeko hautagai bikaina da. Azeriaren harrapakinak: sagutxoak, untxiak... sarritan lur azpian ezkutatzeko dira azeriarengandik ihes egiteko. Izan ere, belardietan, ezkutatzeko leku bakarra lur azpian zuloa egitea baita. Zergatik uste duzue ba, sortu zela satorra bezalako animalia zelebrea? Lurpean harrapakina sartzeko bada, alferrik da bista edo usaimen ona izatea, ez dugu harrapakina ikusi edo usainduko eta.

Baina azeriak badu hankapean super botere bat: sentikortasun handiko kuxinak. Bere hankak lurpean gainean ipintzean, lurrean dabilen sagutxoak ateratzen dituen zaratak antzemateko gai da dardara bidez, modu honetara, sagua nondik aterako den igarri dezake eta bere zain geratu besterik ez du.

Baina super animalietan hobe-

renak negua izoztuta irauan dezaketan igel eta apoak dira. Izozte txarra da bizidun gehienetan, bestela galdetu Juanito Oiarzabali. Abiadura geldoz izoztean, gure odolean pixkana izotz beirak agertzen hasten dira, beira hauek labanak bailiran gure odol hodiak ebakitzen dituzte, gure barrenean kalte larriak eraginez eta heriotza ekarri.

Norbaitek lortuko balu animalia bat segundo gutxitan erabat izoztea eta abiadura berean desiozte, animalia hau airoso asko aterako zen prozesu horretatik, bere barrenean ez baitzuen izotz kristalak sortzeko denborarik izango.

Igel eta apoetan izoztea oso arrunta da. Negua hotza da, beren zuloetan ez dago berogailurik, hegazti eta ugaztunek ez bezala ezin dute beroa sortu, beraz izoztu egiten dira, erabat. Baina igel eta apo hauen odolean, izotz beirak sortzea ekiditen duen konposatu bat egoten da, eta gainera, beren energia kontsumoa gutxitzeko bihotzak oso taupada gutxi ematen ditu minutuko. Honela irauten dute negua, eta tenperaturak igozteren direnean, saltoka-saltoka berriro beraien bizitza normala egiten dute. Harrigarria ezta? Ba eman begirada bat azken honi!

Ezin naiz geratu hainbeste miresmen sortzen didan basoko saguaz hitz egin gabe, izan ere, sagutxo honek eraldaketa handi bat pairatzen du udaberrian. Urte gutzian, saltoka eta ezkurak janez ibili den sagutxo polit eta borobila, udaberriaren pare bat astez eme gosez dabilen animalia hiperaktiboa eta zoroa bihurtzen da.

Nire ustetan, udaberriko ugal sasoiaren sagutxo arraren hankartean zerbait *arraroa* gertatzen da, zeren jateari uko egin, eta etengabe eme bila hasten da. Bere ibibidean topatzen duen sagutxo eme koitadu orori gainka eginez ibiltzen da bi aste luze, mokadurik probatu gabe, lotarako betarik hartu gabe. Noski, erritmo hau luzaroan jasatea ezinezkoa da eta bi asteren bueltan sagutxo arra, irribarre bat duela ahoan, hil egiten da. Hulk ahaltzua honekin alderatuta, katutxo koitadu bat da.

Espero dugu, hurrengo ikerketek animalien super botere gehiago atzemango dituztela, jendearen lilura eta errespetua sortuz eta zutabetxo hau elikatzeko gaiak emanez. Guk ez dugu super boteririk, baina bai web orri polit bat, bioaniztasunetik.com, posta elektronikoko bat, bioaniztasunetik@hotmail.com, eta sare sozialetan lekutxo bat.

Jarraitu zutabetxo xume hau irakurtzen eta zuen ikastetxeetara, herrietara, kultur etxetara... gonbidatzen. Eta ea letra soiletik hitzetarako pausoa ematen dugun.

Izpizarrak Zarra

talentu lehiaketa

Hautaketa proba: ekainak 26
Lehiaketa: ekainak 28
Inbaxurondo Kultur Etxea

Sanera doan

ordua 18:00

Kontzertua eta iparrak

INFORMAZIOA ETA IZENA EMATEKO
ekainak 22 baino lehen
plazaragoaz@gmail.com
628552066
inbaxurondo@donostia.org
943279343

epaimahaiaren saria
500 €
ikusleen saria
300 €

teknologia berriak eta kultur produktuek erosteko bonoak

Aurkezlea eta Epaimahai

Fernando Ruiz
Ainhoa Aierbe
Bary Marley
Edu Murumendiaraz
Itaso Gubierrez

laguntzaileak

antolatzaileak



Villabonako Errebote plazan dagoen areto futbol zelaian jokatzeko txapelketako partidak. A. IMAZ

Kuadrilen izen ona eta futbola nahasten dituen txapelketa ari dira jokatzeko

Villabonako plazako futbol txapelketaren finala uztailaren 24ean jokatu da, Santos bezperan

Asier Imaz Amasa-Villabona

Urtero-urtero ikusle ugari biltzen dituen Santiotako kuadrilen arteko areto futbol txapelketa duela bi aste hasi zen. Herritarren arteko txapelketa hau ez da txantxetako, izan ere, antolatzaileen esanetan, kuadrila bakoitzaren izena egoten da jokoan, eta honek seriotasun handia ematen die partidei. 16 talderen arteko lehia uztailaren 24ean argituko da, Santos bezperan, orduan jokatu-kobaita final handia.

Azken urteetan bezala, aurtengo txapelketa Wuitxu kuadrila

ari da antolatzen. Bertako kideen esanetan, «tradizio handiko txapelketa da hau, izan ere, gure gurasoek ere jokatu izan zuten». Partidak astelehenero, asteazkeno eta ostiralero jokatzeko dira, egun bakoitzean hiru, 18:30etatik 21:30era. Hartzeko modukoa dena, gerturatzeko den ikusle kopurua da. Ikusmin honen arrazoiak bat baino gehiago dira Wuitxukoentzat: «Alde batetik, tradizioa duen txapelketa delako; bestetik, futbola jendea erakartzen duen kirola delako; eta azkenik, kuadrilen arteko delako».

Herritarren arteko lehia izanik, bakoitza bere izena defendatzera irteten da plazara, eta hor txantxetarako betarik ez dagoela diote Wuitxukoek: «Partida amaitezen pote bat hartzea joateko arazorik ez dago izaten, baina aurretik eta partida bertan, gauzak oso serio hartzen dira, bakoitzak bere koadrilaren ohorea defendatuko balu bezala da». Sarri, bi taldeen ohoreak talkara iristen direla ere onartzen dute antolatzaileek.

Plazan ez dago egurrezko edo belarrezko zelairik, eroriz gero, zauriak ez dira urrutituz izaten, beraz. Urtero izaten omen dira lesioak, eta aurtun, jadanik hiru jokalaririk hartu dute min. Motibazioak beldur hori gainditzeko omen du, ordea, Wuitxukoek esanetan.

16 kuadrila eta bi talde. Taldeko lehen laurek egingo dute aurrera, eta ondoren, kanporaketa bidez, finalera bi iritsiko dira. Faboritoen artean, Rainbow eta ZE, iazko irabazlea aurkitzen dira, belu-naldi berriak ahaztu gabe.

Sariei dagokionez, aurtun bi berriak egin dituzte. Ohiko jokalaririk onenarekin batera, goleatzaile onena eta gol gutxien jasotzen dituen atezaina sarituko dituzte, talde finalistekin batera.

Sariei dagokionez, aurtun bi berriak egin dituzte. Ohiko jokalaririk onenarekin batera, goleatzaile onena eta gol gutxien jasotzen dituen atezaina sarituko dituzte, talde finalistekin batera.

Sariei dagokionez, aurtun bi berriak egin dituzte. Ohiko jokalaririk onenarekin batera, goleatzaile onena eta gol gutxien jasotzen dituen atezaina sarituko dituzte, talde finalistekin batera.

Sariei dagokionez, aurtun bi berriak egin dituzte. Ohiko jokalaririk onenarekin batera, goleatzaile onena eta gol gutxien jasotzen dituen atezaina sarituko dituzte, talde finalistekin batera.

→ Laburrak

Ipurbeltz lokalaren inguruko bilera, gaur

ANOETA › Ipurbeltz lokalaren inguruko bilera egingo dute gaur, 19:30ean, udaletxean. Maiatzaren 7an burutu zen bileran, Ipurbeltz lokalari herritarren beharren arabera erabileraren ematea erabaki zen. Gaurko bileran, herritarren eta herriko eragileen proposamenak jaso nahi dituzte. Horregatik, guztiak gonbidatu dituzte bilerara, denen artean proposamenak aztertu eta lokalaren erabilera adosteko.

'Gazta zati bat' dokumentala, etzi

ZINEA › Ikaztegieta, Zizurkilen eta Anoetan Jon Maia bertsolariak zuzendu duen *Gazta zati bat* dokumentala ikusteko aukera egongo da etzi, hilaren 15ean. Anoetan, 22:00etan botako dute Mikelasagasti auditorioan; Zizurkilen, Atxulondo kultur etxean, ordu beretan; eta Ikaztegieta, 21:30ean, udaletxeko aretoan.

Armarriaren diseinuaren inguruko bilera, gaur

ZIZURKIL › Herriko armari berriaren diseinuaren inguruko herri bilera gaur egingo dute Zizurkilen, 19:30ean, Atxulondo kultur etxean. Bestalde, KZ Guneko ekaineko lehen tutoritzara orduak bihar izango dira, 09:00etatik 13:00etara. Bigarrena hilaren 28an izango da.

Gutuna

Ikasturte amaierako jaialdian parte hartu zuten guztiei eskerrak beroenak!

Jesusen Bihotza ikastolak orain berri ospatu du bere jaialdia. Lerro hauek erabili nahi ditugu, modu batean edo bestean jaialdian lagundu duten taberna, denda eta enpresa guztiei eskerrak emateko.

Centro Cien, Iparfrio, Lakunza arropadenda, Xarmant ileapaindegia, Sarasola, Aburuza eta Satxota sagardotegiak, Sahatsa belardenda, Lider gozotegia, Marie Brizard, Shepherd's garagardotegia, Mujika ileapaindegia, Or-konpon edaritegia, Tinta, Obaba edaritegia, Pepi janaridenda, Arnasa taberna, X los pelos ileapaindegia, Mariage, Cid Bitxitegia, Garmendia harategia, Ifn illeapaindegia, Garazi loradenda, Albizu Kirolak, Kinpira belardenda, Gema loradenda, Galerías Maria Jesús, Eizmendi kirolak, Amaiur, Basajaun, Garintza, Baratz fruitadenda, Benito harategia, Estankoa, La huerta del país, BM supermerkatua, Kutxa, Irrintzi Elkartea, Zurbeltz ELkartea, Amane, Txapeldun taberna, Xiker taberna, Kazetaria paperdenda eta Cubamar-i, beraz, eskerrak beroenak.

Hauek guztiek eskainitako laguntza eta emandako gauza guztiengatik izan ez balitz, Jesusen Bihotza ikastolako DBH 3. mailako ikasleek ezin izango zuten tonbola antolatu.

Mila esker guztiet!

■ Villabona eta Zizurkilgo Jesusen Bihotza Ikastola.

Oriako merkatariek Vicente Amezttoy omendu nahi dute

Arantza Arregi asteasuarrak irabazi du merkatarien elkarteak zozketatu duen Pariserako bidaia

A. Imaz Amasa-Villabona

Vicente Amezttoyri billabonatarrek omenaldi beroa egin nahi izan zioten maiatzean, Gurea Zinemako erabilera antzeko aretoan, margolariaren lanak ikusgai jarriaz. Oriako merkatarien elkarte-kideak ez dute atzean gelditu

nahi izan, eta Amezttoyri omenaldia egitea erabaki dute. Oriatik azaldu dutenez, margolaria bi eratara omenduko dute: «Vicenteren lana sinbologiaz beterik dago, eta lurra, euskal paisaiak presentzia handia du. Elkarte-merkatariek Gureako erakusketari keinu bat egin nahi izan diote, eta beraie erakuslehoetan hain gureak diren espartina pareta eta belar sorta bana jarri dituzte. Bestalde, kultur etxeko margo tailetan, kultur etxeko margo tailetan, margolariaren lanak ikusgai jarriaz. Oriako merkatarien elkarte-kideak ez dute atzean gelditu

ibiltari bat egitea lortu da, merkataria lanak haien artean aldatzen doaz, billabonatarrek mugitzaile lortzen delarik, eta denadak bisitatzea», azaldu dute Oriako merkatarien elkartetik.

Arantza Arregi, Pariserako bidaia
Eros ezak/n hemen eta joan hadi Pariserako bidaia irabazteko
Arantza Arregi asteasuarra izan dela azaldu dute merkatarien elkartetik. Sariaren irabazleak Albizu Kirolak denda egin zituen erosketak, eta honen truke jaso zuen txartelak eman dio bi lagunentzako Pariserako bidaia.

Uda honetan **zatoz** HITZAren itzalera

Egin harpidedun Ekainaren 4tik Uztailaren 27ra eta jaso eguzkitako hau opari!

Harpidetu zurea hitza. Gurea Surf Harpidetza. surf taula jokoak ditugu.

Harpidetza: 902-82 02 01 harpidetza@hitza.info

hitza



Behetikobiden kokaturiko erabilera anitzeko eraikina urte amaierarako edota datorren urte hasierarako amaituta egongo da. I.T.

Erabilera anitzeko eraikinak adimen urritasuna dutenen zentroa hartuko du

Goienetxe fundazioarekin sinatu duen hitzarmenari esker, eskualdeko zerbitzua emango du

Iñigo Terradillos Ibarra

Ibarrako Behetikobiden eraikitzen ari diren erabilera anitzeko eraikinak adimen urritasuna duten pertsonen arreta eskaintzeko Garagune zentroa hartuko du, Ibarrrako Udalak eta Goienetxe fundazioak sinatu duten hitzarmenari esker. 2013. urte hasieran izango da martxan zerbitzua.

Gipuzkoa osoan ditu zentroak Gureak taldearen barruan dagoen Goienetxe fundazioak. Ibarrrakoarekin, hamaika izango dira guztira. *Bizi bat egunean zehar* lelopean, adimen urritasuna duten helduei eguneko zerbitzua ematen diete. Juan Ribera eta Jose Angel Mendiluze, Goienetxe fundazioko lehendakaria eta zuzendaria izan ziren atzo eginiko agerraldian, eta Ibarrrako Udalari zein Gipuzkoako Foru Aldundiari eskerrak ematearekin batera, zentro hauen egitekoa azaldu zuten: «Garagunen parte hartzen ari diren pertsonen ohiko jarduerak burutzen dituzte zentroetan, eurak ere gizartearen barnean eta gizartearen zati senti daitezten».

Egun Tolosan ere badute zentroa, baina hura «txiki» geratu zaiela diote, eta Ibarrrako Udalak



Ibarrako Udaleko ordezkariak eta teknikariak, Goienetxe fundaziokoekin, atzo. I.T.

eskaintako lokala egokia dela eskualdeak dituen beharrak betetzeko. «Egun 11 erabiltzaile ditu Tolosako egoitzak, baina Ibarrrakoa prest dagoenean 22 lagunentzat zerbitzua ematea espero dugu», azaldu dute. 220 pertsonari ematen diote zerbitzua Gipuzkoa osoan dauden zentroek.

Ibarrako garagune zentroak 22 pertsonari zerbitzua ematea aurreikusten dute

Sinatu duten aurre akordioari esker, Ibarrrako Udalak lokala utziko dio Goienetxe fundaziolari, eta fundazioak adimen urritasuna duten helduei zerbitzua emango die, Garagune programaren bitartez.

2011ko apirilean hasi ziren eraikina egiteko obrak, eta 2012ko

urte bukaerarako edota 2013ko urte hasierarako amaituta egotea aurreikusten dute. Goienetxek 2013. urterako egokituta izango du Garagune zentroa.

Bi solairu ditu, 450 m2

Erabilera anitzeko eraikinean etxebizitzet gain, jubilatuentzat eta pentsiodunentzat zentro bat eta eguneko zentro bat aurreikusi zituen aurreko legealdiko udal gobernuak. Baina, Jexux Peñagarikano alkateak azaldukoaren arabera, «behar bezalako kudeaketa ez zen egin, eta Diputazioak erabaki zuen Ibarrrak ez zuela eguneko zentrorik behar».

Eguneko zentrorik ez bazen egingo, jubilatuentzat zentroa ere ez egitea erabaki zuen orduan egungo udal gobernuak: «Jubilatuak hitz egin genuen, eta orain duten egoitzarekin nahikoa dutela eta gustura daudela esan ziguru-».

Beraz, bi lokalak hutsik geratzen zirenez, Gipuzkoako Foru Aldundiari eskaini zizkion udalak, gizarte alorrera bideratzeko helburuz.

Orduan, «Diputazioaren bitartekaritzari esker», Goienetxe fundazioa Ibarrrako Udalarekin jarri zen harremanetan. «Bi lokalak ikusi ostean, jubilatuen zentroa egiteko erabili behar zena egokiago zela eurentzat ikusi genuen». Planta bat eta tarteko solairu bat ditu, 450 m2 inguru orotara. «Ibarrrarentzat horrelako zerbitzu bat jartzea oso garrantzitsua da, gizarte alorrean hutsune nabarmena beteko baitu».

Eguneko zentroa bideratutako lokala bere horretan geratuko dela adierazi du Peñagarikanok, «aurrera begira eguneko zentro bezala, edo bestelako funtzioaren bat izan dezan».

• ibarraldea@hitza.info

Ordizia eta Irura bitarteko radarrak ez du isunik igorriko aurrerantzean

Urtebetean ibilgailuen abiadura 8,3 kilometro orduko moteldu da, eta %16,7 jaitsi da istripuen kopurua

I. Terradillos

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak adierazi duenez, Ordizia eta Irura arteko errepide-tarteko radarrak N-1-eko zirkulazioa «baretzea» lortu du Gipuzkoan, eta ondorioz, aurrerantzean ez du salaketa gehiagorik igorriko.

Trafiko Zuzendaritzak azaldu duenez, «iazko ekainean funtzionatzen hasi zen radarrari esker, batez besteko igarotze-abiadurak nabarmen egin du behera». Radarra jarri aurretik autoen ia erdiak abiadura-muga betetzen ez zuen arren, egun datu hori %20 baino gutxiagokoa dela adierazi dute, eta beraz, «helburua bete da».

Gisa honetako lehenengoa

Euskal errepideetako lehenengo tarteko radarra jartzeko Ordizia eta Irura bitarteko N-1 errepide-tartea hautatu zuten, «ezbehar-tasa oso altua zen, eta gehiegizko abiadura bereziki nabarmentzen zen istripuen faktore eragile gisa; gainera, penintsulako komunikazio-bide nagusietako bat da».

Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak emaitzak aztertuta, eta ondorengo ondorioztatu du: tartea horretan, batez besteko igarotze-abiadura 8,3 kilometro orduko moteldu dela; ezbehar kopuruaren hazkundea geldiarazi dela; eta inguruko tartek baino bilakaera positiboagoa izan duela. Era berean, abiadura moteldu denez, arau-hausteen kopurua ere behera egin duela adierazi dute. Iazko ekainean gehiegizko abiaduragatik 1.142 gidariri jarri zieten isuna, eta aurtengo maiaztzean, 305 gidariri. Istripuen kopurua, berriz, % 16,7 jaitsi da.

Bada, Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Zuzendaritzari eman diote erabakiaren berri, eta honek ezbehar-tasarik handiena duten puntuetan abiadura-mugak aldatzeko konpromisoa hartu du.

Bestalde, aurrerantzean isunik jarriko ez duen arren, radarrak bertan jarraituko duela esan dute, «datuak aztertzen jarraitzeko».

Jaurlaritzak Ertzaintzako Trafiko Unitateari eskatu dio bide horretan abiaduraren zainza eta kontrola indartzeko, radar mugikorren bidez.

Irudia ◦ Alegia



INTXURRE, KOPAKO TXAPELDUN

Gipuzkoako Kopako finala irabazi berri dute Alegiako Intxurre futbol taldeko infantil mutilek. Donostian jokatu zuten finala Gure Txokoa talde nafarraren aurka, eta alegiarrak, nagusitasunez, 3-0 gailendu ziren. Zale ugariaren babesa izan zuten finaleko partidari jokalariek. «Oso gustura» daudela azaldu dute Intxurre taldetik, denboraldi «bikaina» egin baitute. P.RENOBALES

Hitza txapelketako lehiak

Erredakzioa

Iragan asteburuan IX. Hitza Pilota Txapelketako bigarren jardunaldia jokatu zen. Hirugarrenari dagokionez, partidak ondorengo leku eta egunetan izango dira:

etzi, Adunan, Albizturren, Astesun, Berastegin eta Bidegoianen jokatuko dituzte, 19:00etan hasita. Astelehenean, berriz, Amezketan, 18:30ean, eta Tolosako Beotibarren eta Bidegoianen 18:00etan izango dira.

↓ **HITZA Pilota Txapelketako emaitzak**

INFANTILAK

Arandia-Aizpitarte	18
Zubeldia-Artola	12
Luzuriaga-Otaegi	18
Amundarain-Lasa	7
Dorronsoro-Zinkunegi	12
Arrate-Tormo	18
Altuna-Zubeldia	18
Irazu-Mujika	10
Jauregi-Pagola	11
Egibar-Ezeiza	18
Oiarbide-Murua	18
Mujika-Zubeldia	8
Elola-Jauregi	18
Mozo-Alustiza	10

ALEBINAK

Olazabal-Eraso	16
Goiburua-Intxaurrondo	8
Morales-Zeberio	16
Usandizaga-Sarasua	3
Txapartegi-Tolosa	11
Iruretagoiena-Arzamendi	16
Iruretagoiena-Olazabal	7
Murua-Olano	16
Agirre-Iratorza	7
Elizegi-Otaegi	16
Goikoetxea-Arruabarrena	16
X. Murua-J. Olano	15
Bengoa-Jauregi	16
Aizpuru-Zabala	10
Zinkunegi-Etxeberria	16
Onsalo-Karrera	5

BENJAMINAK

Altuna-Estarbe	16
Altuna-Sarasua	3
Otaño-Rekondo	7
Altuna-Perurena	16
Lasa-Lopetegi	16
Aburuza-Olasagasti	1

Uzkudun-Artola	16
San Sebastian-Muñoa	13
Huizi-San Sebastian	16
Elduaen-Irazu	3
Esteban-Zubeldia	16
Eraunzetamurgi-Perurena	7
Zeberio-Morales	16
Gorostidi-Ugartemendia	11
Agirrezabala-Urkiri	5
Goiburua-Agirrezabala	16
Eraso-Sudupe	10
Aranalde-Zubillaga	16
Ugartemendia-Erauskin	16
Sorralarin-Auzmendi	14
Agirretxe-Larrarte	12
Aizpuru-Izagirre	16
Altuna-Iraeta	16
Tolosa-Herrero	4

KADETEAK

Etxeberria-Mendi	18
Arrue-Irisarri	8
Peña-O. Aburuza	18
Irisarri-Maiz	3
Santxez-Etxeberria	10
Egiguren-Beloki	18
Labaka-Mendia	18
Iturbe-Zabala	5

JUBENILAK

Oria-Mujika	22
Otaño-Otaegi	15
Galarraga-Iruretagoiena	22
Mendi-Zeberio	6
Labaka-Balardi	18
Mujika-Erasun	22

NAGUSIAK

Sukia-Arratibel	22
Gaillaralde-Santxez	21

Irudia ◦ Lizartza



GAZTETXEAREN ALDE, AFARIA

Lizartzako zezengorri gaztetearen aldeko bertso afaria egin zuten iragan larunbatean. 70 lagun inguru bildu ziren, «oso giro onean». Mahaiairen bueltan solasaldi «aberratsa» egin zutela azaldu dute. Aitor Agirrebarrena herriko presoak zein Euskal Herriko preso eta iheslariak izan zituzten gogoan. Bestalde, iragan asteartean presoenguruko hitzaldia izan zen, eta 50 lagun elkartu ziren. HITZA

✉ **Gutuna**

Alarmismorik ez, atez ate bai!

Lehenik eta behin, lasaitasuna eskatuko genuke, gauzak azaltzeko eta egiteko erarik proposena dela iruditzen zaigulako. Aldi berean, salatu nahiko genuke EAJ-PSOE alderdi politikoei, eta nola ez, *El Diario Vasco*, *El Correo*, *El Pais* eta abar bezalako egunkariekin, egiten ari diren intoxikazio eta manipulazio atez ateko zabor bilketaren sistemarekin.

Orain dela gutxi, Ibarrrako Udalak osoko bilkura egin zuen atez ateko hondakin bilketa sistema onartzeko, aurretik informazioa emateko bi herri batzar (euskaraz eta gaztelaniaz) antolatu zituelarik udalak.

Osoko bilkuran EAJko Chelo Romeo eta Itziar Jauregi zinegotzik ez zuten ahoa ireki ere egin; bilkuran parte hartu genuen herritarrok jakin gabe geratu ginelarik EAJren iritzia edo proposamena. Jakina! Hurrengo egunean *El Diario Vasco* egunkarian EAJko zinegotzieren izenean, gutun bat argitaratu zuten; intoxi-

kazio eta manipulazio gehiago! EAJren betiko jokaldia: txiringitza euren ez badute kontrolatzen, dena kakaztu beharra daukate, lotsagarria! Arduragabekeria hutsa!

Ezker abertzalea ez da sartuko prentsa gutunen gerra batean, EAJ eta PSOEren gezur eta intoxikazioak ziur gaude denbora ez hain labur batean erantzunak eta argituak izango direla.

Ibarrrako Bilduk hartu dituen erabaki ausart eta koherenteak txalotzen ditugu, hondakinekin Gipuzkoan daukagun arazoaren aurrean. Bere osotasunean arazo larria dugu gipuzkoarrok, eta oro har, mundu guztiak, sortzen dugun zaborraren. Horren aurrean Bilduk eta Zero Zabor mugimenduak elkarlanean zabor bilketa eta birziklatze sistema berri baten proposamena aurkeztu digute, atez ateko sistema, konpostajea...

Zer proposamen edo alternatiba gehiago daude? EAJ eta

PSOEren bosgarren edukiontzia? Eta erraustegia zer? Zergatik ez dute informazio guztia ematen? Nork eta zer inposatu nahi du hermen? Zer da galdetu behar zaiena herritarrei, ea zuek kutsatzeko eskubidea duzun erraustegiarekin? Hemen eta inon, ingurugiroa eta osasuna kutsatzeko eskubidea ez du inork!

Ezker abertzaleak beti bultzatu du, eta orain ere bultzatuko du, parte hartze demokratikoa, are gehiago hondakinen arazoaren aurrean herritar ororen implikazioa beharrezkoa denean, eta horregatik, Ibarrrako Udalak Zero Zabor taldearekin antolatuko dituen auzoetako batzarretarako adi egon zaitzete, ibar orero, bertan informazioa emango baita, herritarren iritzi eta parte hartzea oso kontuan hartuko da, eta zalantza argitzen joango dira. Ondo egitea posible delako, eta gure osasunak eta ingurugiroak eskertuko digulako: atez ate bai! Ez hemen eta ez inon, errauskailurik ez!

■ Ibarrrako ezker abertzalea.

📍 **Hilberriak eta urteurrenak**

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



MARIA URÍA AMEZTI

Herenegun hil zen, 83 urte zituela. Ezkerrekoak eta Aita Santuari Dederikoa hartu ondoren.

- Golan bego -

Arria zuzendaria. Nola Sarria: Teresa; Leire; Arantza; zama-akaba; Fina eta Karmela; Citrea; Mª Jesus eta Ina; Gorka eta Eusebio; Iria eta Pamiela; Barikome; Inma; eta Pedro; Gaitza; Txakale; Miren; Eusebio; Andoni; Aitor; gure-erretor; Aguirre (I) eta Maria Jauregi (I); Basilio (I) eta Ignazio-iratorza (I); Jose (I); Felix eta Angela Vicuña; eldon; urte-irretak; Ramona (I) eta Marius; Alberto; Jose eta Helen; Apetaxa (I); lehenguzak; Iñaki eta gureneko ahaideak.

Haren arimaren alde ororo bat eskatu: Zuzene eta arikeri arto zardetara. GAIK, auzokarien, antzinatekoen, ZAZNETAK, ANOKI MAIRA, JESUS, INDEKAR, BENEKOLAK, gurea bertan dila, agingorren hitza etorkizuna. Eskerrik asko gutxiro aldearekin.

GABRI, 2012ko ekainaren 13a

Hilbidia: Agurri-Bert baserria (Agora auzoa)

Oharra: Gurea Buztegiak GUREN BELATOKIARI gureguz da



GOIZA	LAINOTUTA
ARRATSALDEA	LAINOTUTA
BEROENA	29°
HOTZENA	15°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizalzeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialdea, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Amarozko haurrek eginiko buruhandiak, ia prest

Asteartero biltzen dira eta helburua 8 bat buruhandi egitea da; 20 gaztetxo inguru ari dira lanean

Rebeka Calvo Tolosa

Amarozko jaiak hilaren 29tik uztailean lera izango dira, baina auzoan hasi dira, jada, lanean. Maiatza erdialdetik 20 bat haur biltzen dira asteartero, auzo elkarteetan, eta bertan, festak girotzeko buruhandiak egiten ari dira. «Haurrak taldeka aritzeaz gain, eta haietazko zerbaitegitearekin btera, haien auzoarentzako zerbaitegitea egiten dute. Aldi berean, umeak buruhandiak nola egiten diren ikasten dute», azaldu dute auzo elkarteko kideak.

Helburua 8 bat buruhandi egitea da, baina helburu material horretaz gain, beste xederik ere badute, antolatzaileen hitzetan. «Jostailuak oso sofistikatuak edo industriak ekoiztutakoak izan behar dutenaren mitoa gainditzen ari gara, eta aspalditik umeak

ondo pasatzeko erabili diren jostailu, joko eta teknikak berreskuratzen ditugu», gaineratu dute.

Horiek horrela, auzo elkartetik balore oso garrantzitsuak trasmittitzen saiatzen direla nabarmendu dute: elkarrekin aritzea, sormena, komunikazioa eta abar.

Boluntarioen laguntza

Honi guztiari, jarduera guztiak boluntarioei esker egiten dituzte-lagehitu diote: «Auzokideek auzorako egiten dute lan diruaren trukerik gabe». Eta erabiltzen duten materiala ere (kola eta pinturak izan ezik) birziklatu da. «Erabili eta bota» gizarte honetan, baliabideak kontrol gabe utiati eta kontu gabe erabili eta bota egiten den gizarte honetan, gure inguruan dauden baliabideak ezagutzea ezinbestekoa da», esan dute.

Egiten dituzten buruhandiak jaietan erakutsiko dituzte bai kalejiran, eta baita lehenago egingo duten erakustaldi batean ere.

Buruhandien taileraz gain, Amaroze auzo elkarteko kideak elastiko lehaiaketa bat antolatu dute.



Haur eta gazteak buruhandiak egiten dituzte astean behin. HITZA

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. Telefonoa: 943 65 10 40.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agenda

DEIALDIK

- **Amasa-Villabona.** Zero zabor estrategiaren inguruko hitzaldia, gaur, 19:30ean, udalarteko batzar aretoan, udalak antolatuta. Elizatik Txerminera bitarteko bizilagunei zuzenduta egongo da, eta hitzaldia gaztelaniaz izango da.
- **Tolosa.** Larunbatean San Frantzisko pasealekuan izango den kuadrilen arteko XIV. Street

Basket Txapelketan izena emateko 10 euro ordaindu behar da, eta www.takesb.com helbidean eman behar da.

■ **Bedaio.** Igandeko, hilaren 17ko, VI. Mendi Martxan edo V. BTT Bizikleta Ibilaldian parte hartu nahi duenak www.bedaio.com webgunen, mendimartxa@bedaio.com helbidean edo 629 199 166 telefono zenbakira deituta eman behar du izena.

■ **Tolosa.** Tolosaldea Igeriketa Kirol Taldeak hogei urte baino gehiago dituztenei zuzendutako ikastaroa antolatu du. Irailen hasiko dira eskolak eta izena hilaren 14a baino lehen eman behar da 667 631 742 telefono zenbakira deituta.

■ **Villabona.** Santio jaietako egitarauaren azala egiteko lehiaketa abiarazi du udalak. Lanak hilaren 25a baino lehen utzi behar dira udal bulegoetan.

Aurkezten diren lanetan *Villabona-Santio Jaiak, uztaila 2012* azaldu behar du. Gutxieneko formatua 18x24 zentrimetokoa izan behar du, eta lanak inoiz argitaratu gabeak behar dute izan. Irabazleak 300 euro saria eskuratuko du.

■ **Tolosa.** Iturriza jubilatuen elkartearen mus txapelketan izena emateko bulegora joan behar da hilaren 19a baino lehen, 10:00etatik 12:00etara.



“Bilketa sistema garestiagoo bada ere kudeaketa ziklo osoa kontutan izanik merkeagoa da atez atekoa eta lanpostu gehiago sortzen du.”

Josu Amilibia.
Ekonomilaria.



Osasunagatik
Ingurugiroak
kezkatzen gaituelako
Ongizate arrazoiengatik
Seme-alabengatik
Arrazoi ekonomikoengatik

ondo
egitera
goazz